

SOLSTIZIO KONTZERTUA ARGIAREN BILA

2023.12.16

Amezketeta, San Bartolome

Parrokia

19:00

ET INCARNATUS ORKESTRA

+

Alaitz Artola

Laguntza: 10€

ARGIAREN BILA

“Mihirik gabeko zintzarria, paretan hondatuko” esaten den bezala, argizaririk gabeko argizaiolak deus gutxi balio du, bikain landu eta apainduagatik ere. Argizaiola hitzak euskarri bikoitzari egiten dio men: oholari eta argizariari; halaber, argizari hitzak bere baitan darama iltzatua zer duen helburu: argi ematea.

Zer da ondarea? Gure iraganaren eta orainaren berri ematen digun eta etorkizuneko belaunaldiei helarazi nahi diegun lekuko oro. Argizaiola ea du egiten edonork; arotzaren eta argizarigilearen jakituria biltzen ditu... eta irulearena: haria behar du argizariak, erreko bada. Argizaiola ez da edonola pizten, etxeko lihoz ehundu eta marrazki geometrikoz brodatutako zamauaren gainean baizik. Ez da pizten edonon, elizan baizik, hain zuzen etxeko hilobiaren gainean, edo hura egondako tokian. Ez du pizten edozeinek, etxekoandreak baizik, edo serorak haren orde. Eta ez da pizten beste gabe, familiako hilei argi emateko baizik. Argizaria pizten den bakoitzean hango mundua eta hemengoa batzen dira, hilen eta bizien arteko katea ez da eteten, argiak lotzen ditu, lotzen gaitu.

Zergatik pizten dira XXI. mendean argizaiolak? Zergatik erosten ditugu, edota kandelak, elizara joan gabe ere? Pizten ditugun bakoitzean gure nortasun kolektiboaren lekuko ez ezik protagonista ere bilakatzen garelako, apika. Bakoitzak jakingo, baina horrela egiten dugun bakoitzean ondarea ere pizten da: ondare eraikia eta objektuen, ondare materiala eta immateriala, Euskal Herrikoa eta Pirinoetakoa, eta are urrutiagoko. Sinetsi edo ez sinetsi, argizaiolak piztu orduko lehengo jakintzak eta sinesmenak, erritoak eta tradizioak gogora ekartzen ditugu, eta berritzen.

Belaunaldi bakoitzak aurrekoenetik jasotakoa ber interpretatzen du. Solstizioen esanahia etengabe aldatzen dugu, herioarekiko jarrera bezala. Baina argiak pizten jarraitzen dugu, ilunari aurre egiten diogulakoan-edo. Ondare immateriala iraunarazteko ezin baita biltegiratu, biziberritu baizik.

GI PUZKOAKO GORDAILUA

EGITARUAU:

Ave Maria	Javier Busto
Santua	Inazio Mokoroa
Birjina gaztetto bat	Arr: David Willcocks, JA San Miguel
Ikusezin	Alaitz Artola, Arr: Alejandro Martinez
Battalia	Heinrich Ignez, Franz Biber
Argizari Ederra	Arr: Karlos Gimenez
Nora zoazen erran daztazu	Arr: Bixente Martinez
Eguzki aldetikan	Felipe Gorriti
Itzaltzuko Bardoa	B Lertxundi, Arr: Alejandro Martinez
Ai hau gabaren	Arr: Iñar Sastre

OLERKI HAUTATUAK:

Xabier Lizardi, Joxe Angel Irigaray, etb.

ARTISTAK:

Gitarra: Bixente Martinez. Pianoa: Iñar Sastre. Oboea: Vicente Elizondo. Flauta: Uritze Laka. Klarinetea: Arturo Goldarazena. Biolina: Maddi Arana, Leire Hipolito, Jurdana Otxoa, Nika Bitchiashbili, David Escudero, Txabeli Sierra, Xabier de Felipe, Mikel Urdangarin, Elba Palomo, Maddi Garikano. Biola: Maite Colas, Iraide Sarria. Txeloa: Nora Lopez, Alejandro Martinez, Iratxe Paredes. Kontrabajua: Celida Borrego, Lerman Nieves. Deklamazioa: Felix Artola. Kantari: Alaitz Artola. Sorkuntza plastikoa: Gillermo Olmo. Soinu teknikaria Javeta. Zuzendari: Migel Zeberio.

ET INCARNATUS ORKESTRA:

Taldeak 28 urteko ZIKLOA osatu du, bere sorreran grinez lepo zeuden musikari gazteez osatutako hura heldutasun eta nortasun landuko orkestra bilakatu da. Tartean 600dik gorako artistekin lana partekatzeke aukera izan du eta esperientzia guzti horren emaitza izan dira eginiko 70tik gora grabaketa eta eduki zein estilo oso desberdini dagozkien emanaldi eta ikuskariak. Herrialde ugaritatiek etorritako musikari prestu hauek elkarrekin partekatzen dituzten bizipenen sakonen artean kultura eta bereziki euskal kulturaren lanketa eta zabalkundeari dioten begirunea azpimarratuko genuke eta honen isla nabarmenena da 2020az geroztik, sortu eta antolatzen duen URMUGA jaialdia.

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



Amezketako
Udala



Amezketako San Bartolome Parrokia
Zazpitturi Elkarte

|G|O|R|D|A|I|L|U|A|

Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa
Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA